

TURISMOA ERAKARTZEKO EUSKADIKO AGENTZIEK IAZ BAINO % 91 GUTXIAGO FAKTURATU DUTE, ETA HORIETATIK % 50 BEHIN BETIKO IXTEKO AUKERA AZTERTZEN ARI DA

- **Turismoa Erakartzeko Euskadiko Agentzien Elkartea (ATRAE) oso arduratuta dago sektorearen egungo egoera dela eta, eta, adierazi duenez, “erakundea osatzen duten 27 agentzietako langileen % 86 ERTEan dago, eta lanpostuen % 11 jadanik desagertu egin da”**
- **Halaber, salatu dutenez, turismoa erakartzeko Gipuzkoako agentziez aparte, gainerakoek 0 euro jaso dituzte laguntzetan, eta baztertuta sentitzen dira**

Bilbon, 2020ko azaroaren 30ean.- Euskadiko turismo sektorea kolokan dago. Turismoa Erakartzeko Euskadiko Agentzien Elkartea (ATRAE) oso kezkatuta dago sektorea jasaten ari den egoerarekin, eta aurrerapauso bat ematea erabaki du, Euskadiko administrazio publikoei laguntza eskatzeko. Datuek egoera txarra argi eta garbi erakusten dute: agentzia horiek aurreko urte osoan baino % 91 gutxiago fakturatu dute 2020an, eta turismoa erakartzeko 27 agentzietako langileen % 86 ERTEan dago. Aurrekaririk gabeko krisiak eragindako egoera jasanezina da.

ATRAE osatzen duten agentzia gehienak 5 langile baino gutxiagoko mikroETEak dira. Enpresa txikiak dira, eta oso zaila dute jasaten ari garena bezalako egoerari eustea. Egoera horren aurrean, “turismoa erakartzeko gure agentzien erdia inguru oso serio ari da pentsatzen ateak behin betiko ixtea, edo, gutxienez, aukera hori baloratzen ari da. Duela hilabete batzuk imajinatu ere egiten ez zuten zerbait. Orain arte kaudimendunak ziren eta ondo funtzionatzen zuten negozioak dira, baina egungo egoerak goitik behera aldatu du panorama”, esan du Lorea Uranga ATRAeko presidentek.

Turismoa erakartzeko bidaia agentziak dira euskal turismoaren eskaintza egituratzen dutenak, turismoaren azpisektore guztietako elementu bultzatzailea baitira; hotelak, ostalaritza, garraioa, zerbitzuetako enpresak, gidariak, etab. Ezin hobeto ezagutzen dituzte Euskadik turismorako jomuga gisa eskaintzen dituen aukerak, eta erabat menperatzen dituzte aritzen diren nazioarteko merkatuak eta haien joerak. Beste herrialde batzuetara joaten dira euren zerbitzuak eta produktuak sustatzera, eta, horrela, Euskadiko enbaxadorerik onenetakoak bihurtzen dira.

Egia da turismoa erakartzeko agentziek zenbait laguntza espezifiko eskatu ahal izan dituztela turismoaren sektorerako, COVID-19ak eragindako krisia dela-eta –Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek emandakoak–, baina orain arte laguntza horiek jaso dituzten enpresa bakarrak Gipuzkoako lurralde historikoan daudenak izan dira; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu bereak ebatzi, eta Eusko Jaurlaritzak ere ez ditu oraindik gauzatu. Laguntzak berehala ordaintzen ez badira, enpresen itxiera gero eta gertuago dago.

Beraz, ziurgabetasun egoera horren aurrean, turismoa erakartzeko Euskadiko agentziek hau eskatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren COVID laguntzak lehenbailehen ordaintzea.
- Itzuli beharrik gabeko laguntzak sektorearentzat, iraganean beste sektore batzuekin egin den bezala (eraikuntza, ontzigintza, automobilgintza, arrantza...).
- Sektorea produktu edo proiektu zehatzen bidez suspertzeko laguntzak.
- Bidaia Konbinatuen Legea EAera egokitzea eta gidari ofizialak homologatzea.
- Turismoa erakartzeko agentzien eskutik nazioarteko proiektuetan lan egitea: Euskadiren nazioartekotzearen esparruan lan egiten duten enpresa gisa hartzea.
- BEZ % 10era murrizteko Estatuari egin zaion eskaeran laguntzea
- Turismoa erakartzeko agentzien Euskadiko sektorea gehiago babestea
- Turismoa erakartzeko euskal agentziek antola ditzaketen ekitaldi handiak erakartzea. ABEEak sortzen laguntzea
- Turismoa erakartzeko euskal agentzien bezeroen ehuneko handi bat atzerritarrak direla kontuan hartuta, agentziei eta turismo sektoreko beste enpresa batzuei zuzendutako laguntzei eta prestazioei eustea eskatzen da, herrialdeko mugen egoera normalizatu arte eta gure lurraldean pertsonen zirkulazio askea ahalbidetu arte.

Informazio gehiago:

Peru Salaburu

salaburu@biokcomunicacion.com

639 902 771